

HORMADI. Frantziarrak hobeto sailkatu ziren ligaxkan, eta beraz, hormadiaren aukera dute

Reims txapelduna kontrario

Lapurtarrek Reimsen jokatu dituzte finalerdiko lehen bi partidak martxoaren 13an eta 14an



KOLDO ALDUNTZIN

Hormadiko jokariak Angersen kontrako garaipena ospatzen, asteartean. Eskuinean, Nicolas Carry..

Koldo Alduntzin | **DONOSTIA**

Angersen kontrako final-laurdenetako kanporaketa handikiro gaitzuta, Hormadik are eta kontrario arantzatsua ukanen du finalerdietan: Reims txapelduna. Izan ere, kanporaketa guztiak sailkapen ligaxkaren arabera ari dira osatzen. Hala, Hormadi seigarren izan zen (28 puntu) eta Reims bigarren (40 puntu). Bestetik, finalerdia finkatzeko soilik Grenoble eta Amiens arteko laugarren partida geratzen zen jokatzeko, eta Grenoblek irabazi zuenez 5-1, alpetarrak dira finalerdietan, ezustean.

Horrenbestez, hauek dira kanporaketak: Reims-Hormadi eta Rouen-Grenoble. Final-laurdenetan bezala, bost parti-

data jokatu dira finalerdia, eta hiru irabazten dituen finalera sartuko da. Hormadik Reimsen jokatu ditu aurreneko bi partidak, martxoaren 13an eta 14an, eta hirugarrena, martxoaren 16an. Laugarren neurketa behartuko balute, berriz, 17an izango litzateke, eta bosgarrena, 20an.

Denis Perezek inork baino hobeto ezagutzen du Reims tal-

FINAL-LAURDENETAKO EMAITZAK

Hormadi	3-0	Angers
Grenoble	3-1	Amiens
Viry-Esson	0-3	Rouen
Caen	0-3	Reims

FINALERDIAK

Reims-Hormadi
Rouen-Grenoble

dea, eta berak eman zuen lehen iritzia, atzo: «Lehenik esan behar dut klubaren xede nagusia aski bete dugula finalerdia sartzearekin, eta hemendik aitzina, presiorik gabe arituko gara. Bestetik, Rouen edo Reims suertatzea berdin zitzaigun, eta txapelduna suertatu zaigu. Reimsek aurrekontu izugarria du, eta baita internacional ugari ere. Ligaxkan bigarren izan zen eta gu seigarren; zerbait izango du. Horregatik, Reims nagusitzea normalizat hartu behar genuke, eta guk irabaztea, aitzitik ezustea». Izagirre Bartzelonan izan zen atzo lan bidaian, eta kontrarioa zein zen jakitean, «nahiago dut Reims, Rouen baino», esan zuen.

Angelutar izotz hockeyzale-guztiek biziki ospatu zuten Hor-

madiren garaipena. Batez ere: Martinonek, SAOSeko lehen-dakariak, Deberek, Hormadiko lehendakariak, Decockek, Lautadek, Heudes eta La Barren ziren gainerako jokari ohiek, zaletu sutsuek, jokariak eta, jakina, Karlos Gordobil entrenatzaileak. Hain justu, «merezitako garaipena izan zen, egun historikoa euskal hockeyarentzat» dio donostiarrak, «baina jarraitu egin behar da, eta ahal bada finalera heldu», gehitu du.

Bigarren lerroko Vorobel eslovakiarra eta Nicolas Carry izan ziren golegileak asteartean. Vorobelek ez zuen ulertzen jendearen poza, eta Carryk, berriz, «zazpi urte eman ditut Hormadin, eta dena ezagutu dut. Orain finalerdietan gaude, eta hori historikoa da».

ESANAK

KARLOS GORDOBIL

(Hormadiko entrenatzailea)

«Segitu behar dugu, eta ahal bada, finaleraino; une historikoa da euskal hockeyarentzat»

DENIS PEREZ

(Hormadiko jokalaria)

«Klubak bete du xedea, eta Reimsen aurka ez dugu presiorik ukanen»

NICOLAS CARRY

(Hormadiko jokalaria)

«Zazpi urte Hormadin, eta dena ezagutu dut; une historikoa da»

ERRUGBIA

Zeelanda Berriko Wellingtonek ezin du Stormsen aurka galdu gora egin nahi badu

Koldo Alduntzin | **DONOSTIA**

Super 12ko hirugarren jardunaldia jokatu da asteburuan, eta gaur, aitzineratutako norgehiagoka jokatu dute Wellington Hurricanesek (Z.B.) eta Western Stormesek (Heg.). Wellingtonek hain zuzen, Hegoafrikako beste talde bat hartu zuen mendean bigarren jardunaldian: Northern Bulls (26-20). Horri esker, txapelketako lehen garai-pena lortu zuten, eta seigarren postuan dira 4 punturekin.

Iaz zortzigarren amaitu zuen, baina NPC (Zeelanda Berriko herrialdeen arteko txapelketa) irabazita, joan den irailean, zerbait handia egin nahi du aurre. Hiru laurdenetako le-roan hiru jokari handi ditu: Lomu, Umaga eta Cullen. Horregatik, lehen bailehen hasi beharko luke gorantz egiten, finalerdietara sartu nahi badu bederen.

Stormesi dagokionez, jokaturiko bi partidak galdu ditu. Joan den asteburuan NSW-ek (Aus.) menderatu zuen (35-7). Iaz bosgarren izan zen, eta badirudi aurreneko zailtasunak izango dituela hortik gorantz egiteko. Nolanahi ere, internacional asko du eta ez nolanahi-koak, hots, Montgomery, Fleck, Paulse, Van Straaten, Rossouw, Krige, eta batez ere, Skinstad. Oraingoz behinik-behin, azken postuan da.

Cats eta ACT-ren arteko lehia, biharko onena


Bihar bost partida jokatu dira: Canterbury (Z.B.)-Waikato (Z.B.), NSW (Aus.)-Bulls (Heg.), Cats (Heg.)-ACT (Aus.) eta Sharks (Heg.)-Otago (Z.B.). Cats eta ACT Brumbiesen arteko norgehiagoka da aipagarriena. Izan ere, Cats bigarren da (9 p.), joan den asteburuan Otagori 56-21 irabazi ostean. Lehen jardunaldian ere, Auckland menderatu zuten.

ACT da indartsuenetakoa, baina Sharksen aurka 17-16 galdu zuen. Mortlock-ek eta Roff-ek 6 zigor kolpe galdu zituzten.

BILBAO KAPITAINA JOKATU EZINDA

Sorbalda hautsita

Hormadiko kapitainak partida osoa jokatu zuen asteartean, baina hirugarren zatian, Vorobelek gola sartu aitzin, Koivurekin tupust bortitza ukan zuen, eta ondorio larria ukan du. Partidaren amaieran taldekideek adina ospatu zuen sailkapena, eta aldalekuan ez zen geratu pozaren pozez. Atzo jakin genuen, ordea, lapurtarrak sorbalda hautsia duela, eta ez duela jokatu finalerdietako kanporaketa. Kanporaketa gaitzuta izanaren gakoa aipatu zuen: «Batez ere, mentalitatea izan zen gakoa. Ho-



KOLDO ALDUNTZIN

Bilbao, Dostalekin garaipena ospatzen.

rez gain, kalitate fisikoa, eta jokoan izan genuen diziplina aipagarria izan zen».

Gehienek bezalaxe, «hau ez da bukatu, aitzinera egiteko gogo dugu eta orain arteko jardunarekin jarraituz gero, ezustea emango dugu Reimsen», esan zuen. Giberla begira jarri zen kapitaina «Hamar sasoi egin ditut Hormadin, eta denetarik ezagutu ondoren, biziki kontent naiz Eliten dihardugun hirugarren urtean finalerdietara sartuta. Sasoi aparta osatuta, soilik falta zaigu domina bat eskuratzea». Angelutarrak biziki eskertu zuen zalea, eta heldu den asteartean jokatzetik izango ez duen arren, taldearekin egonen da.